

Arrasateko Udal Biblioteka

MEMORIA
2024



AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	3
HISTORIA ETA EBOLUZIOA.....	4
BAZKIDEAK.....	5
BILDUMA.....	6
MAILEGU ZERBITZUA.....	8
ELIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA.....	13
ERABILTZAILEEN ESKAERAK.....	15
LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA.....	16
TOKIKO BILDUMA.....	17
LAN TEKNIKOAK.....	17
JARDUERAK.....	18
INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA.....	22
IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK.....	24
HELDUAK.....	24
LITERATURA SOLASALDIAK.....	24
IPUIN KONTAKETAK.....	26
IDAZKETA TAILERRAK.....	26
LIBURU AURKEZPENAK ETA HITZALDIAK.....	26
ANTZERKIA.....	27
HAURRAK ETA FAMILIAK.....	28
IPUIN KONTAKETAK.....	28
STEAM TAILERRAK.....	30
HIZKI-HAZKA ARETOA.....	32
MINTZOAN KUX-KUX.....	32
OROKORRAK.....	33
LIBURUAREN EGUNA 2024.....	33
BIBLIOTEKAREN EGUNA 2024.....	36
AHOZ AHO 2024.....	39
BIBLIOPORRAK ETA NEGUKO GIDA.....	40
2024/2025 IKASTURTEKO ESKAINTZA IRAGARTZEKO TRIPTIKOA.....	41
IRAKURPUNTUA.....	41
INTERES GUNEAK.....	42
IRAKURKETA ERRAZECO IRAKURLE TALDEAK.....	43
BISITA GIDATUAK.....	44
JARDUERAK ZENBAKITAN.....	46
ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.....	47
LANTALDEA.....	52
INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK.....	54
FINANTZAKETA.....	56
LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA.....	58
ONDORIOAK ETA LAN LERROAK.....	59
BIBLIOGRAFIA.....	61

AURKEZPENA

Memoria epe motzerako balio duen kudeaketa-baliabide bat da, funtsezko tresna gardentasuna emateko erakunde bati eta haren jardueri. Kudeatzen ditugun zerbitzuen berri ematen du, herritarrak informazioa jasotzeko eskubidea baitu. Hori da, hain zuzen, txosten honen helburu nagusia: 2024. urteko bibliotekako argazkia erakustea.

Memoria honek alderdi prospektiboa ere badu, etorkizunean hobetzeko proposamenak ere jasotzen baitira. Bibliotekako lankide denen partehartzean oinarritzen da, bakoitzak bere ardurapean dituen esparruen datuak eta ebaluazioak jaso baititu eta hortik abiatu gara ondorioak eta ekarpenak biltzeko orduan.

Memoria honetan jaso ditugun datuak landu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2012an argitaratu zuen eta indarrean dagoen *Euskadiko liburutegi publikoen estandarrak* dokumentua kontuan hartuta. Estandar hauek udalerrri bakoitzean lortu beharreko parametroak definitzen dituzte, bertan dauden liburutegi eta zerbitzugune guztiak zenbatuta.

Beraz, datu guzti hauek eta talde-lanaren helburu adostuek eta hausnarketek markatuko dizkigute aurrerantzean jarraitu beharreko lan ildo nagusiak.

Bidean ikasi duguna partekatu nahi dugu, emaitzak argitaratu eta sarean zintzilikatu ere, norbaiti lagungarri bazaio.

Bibliotekako lantaldea

Arrasate, 2025ko martxoa

HISTORIA ETA EBOLUZIOA

Arrasateko udal biblioteka 1966an sortu zen, Garibai etxean. 1987an Monterron Jauregia aldatu zen eta bertan bi hamarkadetan zehar eskaini zituen bere zerbitzuak. Denbora horretan izandako espazio eta irisgarritasun arazoak konpondu egin ziren San Frantzisko komentua zaharberitzean, egungo udal kultur etxea (Kulturate) eta Udal Bibliotekaren egoitza izan zedin. Birgaitze horretan, liburutegirako espazioak horretarako diseinatu ziren, eta 2007an egungo instalazio modernoak inauguratu ziren, 1.600 m² inguruko azalerarekin.

Liburutegiak bigarren zerbitzugune bat du 1991tik, Toki Argi eraikinean Santa Marinako auzo biblioteka dugu, bereziki haur eta gazteei zuzenduta, baina azken urteetan helduei begira ere oinarritzko zerbitzu batzuk ematen ari dena.

2004. urtean, bi udal liburutegi hauek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) sartu ziren, eta, ordutik aurrera, Absysnet hartu zen lan-tresna gisa, elkarlaneko online katalogoan parte hartuz.



Garibai etxea, Monterron Jauregia, Kulturate eta Santa Marina

Bibliotekak sarbide libreko espazio kulturalak direnez, babes lekuak ere badira, adibidez errekurtsio gutxi dituzten pertsonentzat. Horregatik azken urteotan gure lanak zeregin soziala ere badu. Zentzu horretan, ahalegin handia egiten ari gara biblioteketan gure erakundeak gizarteratzeko.


Oro har, liburutegiak finkatu dira integrazioarako, kohesio sozialerako eta garapen komunitariorako espazio gisa. Halere, egungo gizartea konplexua eta anitza da, eta beharrezkoa da baliabideetan inbertsio erreala egitea. Azken urteetan liburutegiak asko aldatu dira, etengabe aldatzen ari dira, beraz, eredu-aldaketa sakona behar da eman. Lehen funtzionatzen zuenak orain ez du balio, gizarteak eskatzen dituen aldaketetara egokitu behar gara.

BAZKIDEAK


Goranzko joerarekin jarraitzen dugu bazkide kopuruari dagokionez. Egun, 14.075 herritar dira bibliotekako bazkide, beraz, esan genezake **Arrasateko biztanleriaren % 64a bibliotekako bazkide** dela, iaz baino lau puntu gehiago.

*Liburutegi Zerbitzuak 2021. urtean udal biblioteka guztietako bazkideen garbiketa egin zuen eta ezabatu zituen azken 10 urteetan mailegu zerbitzua erabili ez zuten bazkide guztiak. Hori da arrazoia 2021ean bat-bateko jaitsiera egoteko gure bazkide kopuruan.


Bazkideak Kulturaten




Bazkideak Santa Marinaran



Bazkide berriak



Bazkideak irakurle motaka




BILDUMA

Biztanleko 2 dokumentu egokitzen zaizkio Arrasateri sarbide libreko funtsetan Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarren arabera. Arrasatek 21.943 biztanle dituela kontuan hartuta, sarrera libreko bilduma 43.886 dokumentu ingururekin osatu beharko litzateke.

Helduen bibliotekan, haur eta gazte bibliotekan eta Santa Marinako auzo bibliotekan dauden sarbide libreko dokumentuen baturak 56.580 ematen du. Beraz, ondorioztatu dezakegu betetzen dugula bildumaren tamainari dagokion parametroa; baina adierazle honek ez digu azaltzen bilduma gaurkotua dagoen ala ez. Adierazle hau, beraz, erlazionatuta dago urtero erosi beharreko dokumentu kopuruarekin. Bilduma gaurkotua mantentzeko, urtero bildumaren % 10 berritu behar da eta, era berean, bildumaren % 10 xahutu. Beraz, urtero 4.388 dokumentu eskuratu beharko genituzke. 2024ean 3.393 eskuratu dira, hau da, bilduma % 7,73a berritu dugu. Gure bibliotekako zerbitzu gutunean ere jasota dagoen konpromisoa da bildumaren % 10 berritzea.


Bildumak etengabeko aldaketak izaten ditu, komunitatearen interesak aldatzen direlako, gaiak zaharkitu eta liburuak hondatzen direlako. Xahuketak ahalbidetzen digu erabiltzaileentzat garrantzitsua, erakargarria eta erabilgarria den bilduma bat izatea. 2024an 1.489 dokumenturi baja eman diegu eta honekin, sarbide libreko bildumatik % 2,63 xahutu dugu.

Bilduma Kulturaten: 70.085 dokumentu




■ Monografiak:	55.711
■ Aldizkariak:	3.215
■ Bideoak:	6.564
■ Musika:	4.266
■ Beste batzuk:	329

Bilduma Santa Marinaran: 7.198 dokumentu




■ Monografiak:	6.075
■ Aldizkariak:	278
■ Bideoak:	685
■ Musika:	149


3.393 dokumentu berri 2024an



3.398 dokumentu berri 2024an jatorriaren arabera




Bilduma kokagunearen arabera




Hurrei zuzendutako dokumentuak bildumaren %30 izatea komeni da eta gazte eta helduentzako dokumentuak % 70. Adierazle hau ondo betetzen dugu Arrasaten.

Helduentzako bilduma hizkuntzaren arabera



Haurrentzako bilduma hizkuntzaren arabera




Euskaraz argitaratzen denari arreta berezia jartzen diogu. Eusko Jaurlaritzak Kulturaren Euskal Behatokiak euskarazko argitalpenei buruzko 2022ko XVIII txostenaren arabera, Euskadiko testu-liburuak alde batera utzita, haur eta gazte literatura da euskarazko literatur argitalpenen industriaren zati garrantzitsuena (% 28,7), helduentzako fikzioa gero (% 14,5) eta, azkenik, fikziozkoak ez diren liburuak (% 14,1). Liburu bildumak ditugu beste hizkuntzetan ere haur zein helduentzat: ingelesez, frantsesez, arabieraz, urduz, italieraz edo portugesez, besteak beste.


MAILEGU ZERBITZUA

Liburuen mailegua da liburutegiek duten funtsezko eginkizuna. 2024an liburuen mailegua **%10a igo da**. Hala ere, azken urteetan gizartean eman diren ohitura aldaketak direla eta, ikus-entzunezkoen maileguaren bilakaerak beheranzko joera erakutsi du eta neurri batean plataforma digitaletan hartu diote erreleboa. Azken 5 urteetan % 60a jaitsi da pelikulen mailegu kopurua. Aipatu behar da azken urteotan ikus-entzunezko ekosistema berri baten aurrean gaudela, izan ere, harpidetza-plataformen arrakastak markatu du ikus-entzunezkoen produkzioak izan duen aldaketa, non plataforma digitalak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren. Netflix, HBO, Filmin ala Disney+ bezalako plataforma digital ordainduak ohikoak bihurtu dira zinea kontsumitzeko ohituretan eta, ondorioz, musika eta zine ekoizleek gero eta produktu gutxiago kaleratzen dute salmentarako.


Bestalde, eskola liburutegien gabeziari erantzuteko, herriko ikastetxeak hornitzen ditugu mailegu bereziekin; hain zuzen, 2024. urtean 1.647 dokumentu mailegatu dizkiegu.




Maileguak Santa Marinan



Helduentzako liburuen maileguak hizkuntzaka



Haur eta gazteentzako liburuen maileguak hizkuntzaka




Mailegatuenak

Helduentzako liburuak gazteleraz



Helduentzako liburuak euskaraz



Haurrentzako liburuak



Gazteentzako liburuak



Helduentzako pelikulak





Haurrentzako pelikulak




eLIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoak *eLiburutegia* plataforman **53.037** dokumentu eskaintzen ditu. Honen bidez, maileguan hartu daitezke liburu elektronikoak, online pelikulak, audio liburuak eta aldizkari elektronikoak.

Maileguei dagokionez, azken urteetako errealitate berrien eta pandemiaren eraginez, mailegu digitala asko hazi eta hedatu da. Pandemiak bultzada handia eragin zion plataforma digitalaren mailegu zerbitzuari, 2020an gorakada handia izan baitzuen. 2021etik 2023ra datuek erakusten dute erabilera ez zela hazi apenas, baina 2024an %23a igo da eLiburutegiko mailegua eta Euskal Autonomi Erkidegoko 10.000 biztanletik gorako udalerrietan **lehen postuan gaude** 1.000 biztanleko 117 maileguekin.



Maileguak 1.000 biztanleko 10.000 biztanletik gorako udalerrietan 2024




eLiburutegia plataforma interneten: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus>

ERABILTZAILEEN ESKAERAK

Bibliotekan egunero jasotzen ditugu eskaerak, aurrez aurre eta online. Oso azkar erantzuten ditugu, eta gainera, ahalegintzen gara erantzun hori positiboa izan dadin. Dokumentu batzuk erosi egiten ditugu, beste batzuk liburutegien arteko maileguaren bidez lortzen ditugu, badira formatu digitalean eskuratzen ditugunak ere eLiburutegiaren bitartez eta gutxi batzuk ezeztatu egiten dira.

2024an **1.344** eskaera jaso ditugu, aurreko urtean baino % 14 gehiago. Erabiltzaileen eskaerei eman zaien baiezko erantzunak guztira % 94 dira eta ezeztapenak soilik % 6. Zerbitzu Gutunean jasotakoaren arabera, eskaeren % 85 eskuratzea da bibliotekaren konpromisoa, eta, bistan denez, egun, helburu hori aise betetzen dugu.




LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA

Bibliotekak espazio eta aurrekontu mugatuak ditu, eta beraz, ezinezkoa da erabiltzaileek izan ditzaketen eskari guztiak bertako bildumarekin asetzea. Eskari hauei erantzuteko modu bat Liburutegien Arteko Mailegu zerbitzua da.

Autonomia erkidegoan Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak kudeatzen du liburutegien arteko mailegua, eta gainera, bere gain hartzen du zerbitzuaren gastua. Ondorioz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen dugun 286 bibliotekok kosturik gabe jaso eta bidaltzen ditugu liburuak eta bestelako materialak liburutegi batetik bestera, erabiltzaileen beharrak asetzeko.

Gure bazkideek liburutegien arteko mailegu zerbitzua bikain baloratzen dute, eta erabilera handia du, geroz eta handiagoa. Bidalitako dokumentuen kopurua 3.651 izan da aurten, iaz baino % 9,4 gehiago, eta eskatutako dokumentuen kopurua 1.775 izan da, iaz baino % 22,4 gehiago.

Datuetan garbi ikusten denez, Arrasateko bibliotekak bidaltzen duen dokumentuen kopurua eskatzen duena baino askoz handiagoa da, bikoitza, eta horrek esan nahi du kalitatezko bilduma daukagula, anitza eta erabiltzaileen beharrei egokitu.



Bestalde, aipatu beharra dago Kulture eta Santa Marinako auzo bibliotekaren artean liburutegien arteko mailegu zerbitzua eskaintzen dela eta erabiltzaileek eskatutako dokumentuak egun batetik bestera ekarri eta eramaten ditugula. Bi liburutegien arteko dokumentu mugimendu hau gero eta handiagoa da, esaterako aurten 78 eskaera erantzun dira.

Dokumentu bat ez dugunean erkidegoko sareko liburutegietan aurkitzen, Estatuko sare nagusienetara jotzen dugu: biblioteka publikoen sarera edota biblioteka unibertsitarioen sarera. Kasu honetan, udal liburutegiak bere gain hartzen ditu bidalketaren gastua eta zerbitzuaren kostua ere bai (liburu bakoitzeko 8 euro inguru).

Aurten 31 liburu eskatu ditugu gure saretik kanpo: horietatik 12 unibertsitateetan eta beste 19 estatuko biblioteka publikoen sarean.

Erabiltzaile partikularren eskaerei erantzuna emateaz gain, herriko erakunde desberdinen irakurketa klubak ere hornitzen ditugu. Bibliotekan bertan 4 talde ditugu: euskarazko solasaldien taldea, gaztelerazkoa, ingelesezkoa eta komiki kluba. Bibliotekatik kanpo, **10** irakurle talde hauekin lankidetzan gabiltza:

- Aita Menni ospitaleko USSA unitateko taldea.
- San Juan de Dios ospitaleko hiru talde: URTMS-Plazaola, Benito Menni eta Sagrado Corazón unitateetakoak.
- Fundación Goyeneche elkarteko bi talde: Arrasatekoa eta Bergarakoa.
- Arizmendi-Gaztelupe ikastolako 4. DBH mailako dibertsifikazio taldea.
- EPA-HHI helduen eskolako talde bat.
- Emakume Txokoko irakurketa feministen taldea.
- Iturbide Egoitzako taldea.

TOKIKO BILDUMA

Tokiko Bilduma bibliotekaren altxor preziatua da, bildumarik bereziena delako, eta bakarra. Bertan biltzen ditugu herriko egileen lanak edota herriari buruzko informazio anitza. Guztira 2.745 dokumentu daude, material mota desberdinetakoak: liburuak, aldizkariak, cdak eta bideoak. Kopuru honi gehitu behar zaizkio beste material batzuk, beraien izaera bereziarengatik ez direnak bibliotekako sistema informatikoan gordetzen: kartelak, jai-programak, esku-orriak, postalak, egutegiak edota artxibo pertsonalak. Artxibo hauek Jose Letona, Jose Maria Uranga eta Juan Leibar filantropo arrasatearrek bibliotekari dohaintzan utzitako dokumentu pertsonalak dira, eta iturri historiko bezala balio handia dute.

2024. urtean 131 dokumentu gehitu dira Tokiko Bildumako funtsera. Hauetatik berriak, hau da, 2024an argitaratuak, 24 izenburu izan dira: 15 liburu eta 9 disko.

Dokumentu berrien uzta oparoa izan da aurten, eta honi gehitu zaio herritarrek egindako emarien kopuru altua. Izan ere, Tokiko Bilduma osatzeko garrantzitsuak dira herritarren inplikazioa eta emariak, Arrasateren gaineko dokumentu interesgarriak lortzen baitira bide horretatik.

Azken urteetan Tokiko Bildumari bultzada eman nahian ari gara, eta ondorioz, hainbat lan eta jarduera garatu ditugu.

Lan teknikoak

Burutu diren lan teknikoen baitan, hauek dira aipagarrienak:

- Udaleko Informatika Sailaren laguntzarekin, DSpace egitura duen datu base berri bat sortzeko pausuak eman ditugu, Tokiko Bildumaren funts digitalak bertan biltzeko eta herritarren eskura jartzeko. Europako katalogoekin bateragarria izango den datu basea osatu nahi dugu.

- Jai programak digitalizatzen gabiltza. Momentuz, San Juan jaietakoak digitalizatu ditugu, 1941 urtetik honakoak, eta orain Santamasetakoekin hasita gaude. Artxiboak Arrasanet datu basean txertatuko ditugu, eta bibliotekaren web orrian ere eskuragarri egongo dira kontsultarako.
- Pedro Uribarrena arrasatearrak bere argazki funtsaren parte bat ekarri zigan dohaintzan 2023an. Dagoeneko argazkiak digitalizatzen amaitu dugu, eta beraz, aurten, deskribapenak egingo ditugu eta bibliotekaren web orrira igo, herritarrek kontsultatzeko aukera izan dezaten.
- Gazteak kontratatzeke Lanbideek sustatzen duen programaren baitan Udalak langile bat kontratatu zuen urte beterako Industria Ondarearen datu baseari eta Tokiko Bildumari bultzada emateko. Kontratua 2024ko azaroan amaitu zen. Bibliotekari dagokionez, Juan Leibarren artxiboa digitalizatu eta deskribatu da eta Jose Maria Urangaren artxiboaren zati handi bat ere digitalizatu da.

Jarduerak

Tokiko Bildumaren zabalkundea egiteko hainbat jarduera egin ditugu. Gainera, herriko talde eta ikerlariekin kolaborazioa ere landu dugu.

Josu Arteaga idazlearen liburu aurkezpena

Idazle arrasatearrak argitaratutako 'Memorias de la mar ciega' liburuaren aurkezpena izan dugu otsailean Kultureteko Jokin Zaitegi gelan. Patxi Irurzun idazle nafarrak egin ditu aurkezle lanak. Herritar ugari bertaratu da eta saioaren amaieran liburuak sinatu ditu egileak.




Josu Arteaga eta Patxi Irurzun



Jokin Zaitegi jendez lepo

Tokiko Garapen Sailarekin elkarlana

Tokiko Garapen Saitetik laguntza eskatu digute garatzen ari diren proiektu baterako. Udalaren web orrian Arrasateko turismo mapa bat diseinatzen ari dira, hainbat ibilbide birtual izango dituen. Interes puntu horiek aberasteko herriaren gaineko informazioa behar dute, eta horretan lagundu du bibliotekak, baliabideen bilaketa egiten eta intereseko dokumentuak digitalizatzen.



Digitalizatutako lanetako bi



Gabonetako lehiaketa

Laugarren urtez jarraian, gabonetako lehiaketa antolatu dugu. Arrasateren gaineko interesa piztea da helburua, eta horretarako herriarekin lotutako zazpi galdera luzatu ditugu. Erantzunak bibliotekan bertan edo web orriaren bitartez emateko aukera egon da. Adin tarte guztietako 245 pertsonak hartu dute parte. Erantzun zuzenak eman dituztenen artean 60 euroko 6 bonu banatu dira, Elkar liburu dendan erabiltzeko.

Berriak oihartzun handia izan zuen herriko zein herritik kanpoko hedabideetan, Euskadi Irratiko *Amarauna* programan adibidez, (2025/01/26, 21:00minututik aurrera)

<https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/amarauna/oso/9679901/>

Biblioteka

GABONETAKO LEHIAKETA

CONCURSO DE NAVIDAD

ZER EGIN BEHAR DA?

- Formularioko 7 galderei erantzun (bibliotekaren edo webb orriaren eskuizagarriz).
- Abenduaren 13etik urtarrilaren 7ra arte.
- 60 euroko 6 bono Elkar Piratasarekin emateko. Bonoen erdiak eduki tokiko-koentzat bango dira.
- Zuzketa onjingo eta goztorra gurtiak ondo erantzuteko dituztuen artean.
- Poin guztietarako.

¿QUÉ HAY QUE HACER?

- Responder las 7 preguntas del formulario (disponible en la biblioteca o en la web).
- Del 13 de diciembre al 7 de enero.
- 6 bonos de 60 euros para gastar en Elkar Piratas. La mitad de los bonos serán para menores de edad.
- Se hará un sorteo entre las personas que respondan correctamente a todas las preguntas.
- Para todos los edades.

ANIMATU PARTE HARTZERA!

Arrasateko Udal Biblioteka
 www. arrasate.net/biblioteka
 Tel. 942 22 08 25
 liburutegi@arrasate.net


Gabonetako lehiaketako kartela



Irabazleak saria jasotzen, Andoni Arratibel zinegotziaren eskutik

Gabonetako pinua

Gabonetan biblioteka apaintzen dugula aprobeztatzuz, aurtengo pinua herriko argazkiekin egin dugu. Pedro Uribarrenaren funtsetik 70. hamarkadako hainbat argazki aukeratu ditugu, herriaren eraldaketa erakusten dutenak, eta horiekin osatu dugu pinua. Arrakasta handia izan du erabiltzaileen artean.



Pinua bibliotekako harreran

Arrasateko idazle eta ilustrzaileen interes gunea

Herriko idazleak ezagutarazteko asmoz, interes gunea jarri dugu helduen bibliotekan. Literatura eta ilustrazio lanak argitaratu dituzten egileen liburuak jarri ditugu ikusgai. Interes handia piztu du erabiltzaileen artean, mailegu kopuruan nabarmendu delarik.









Interes gunea helduen bibliotekan

INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA

Bibliotekan modu autonomoan erabiltzeko ordenagailuak eta wifia daude. Interneten nabigatu daiteke edota ofimatika programak erabili. Eskaneatu eta inprimatu ere egin daiteke.

Santa Marinaran 2 ordenagailu eta inpresora daude erabilgarri. Wifi zerbitzua ere eskaintzen dugu.




Herritar guztiei teknologiarako sarbidea bermatzeko, 2023. urtean martxan jarri genuen ordenagailuak etxera maileguan eramateko zerbitzua sendotu dugu. 2024an 7 ordenagailu ditugu erabilgarri eta, zerbitzua martxan dagoenetik 141 aldiz mailegatu dira.

WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK

Bibliotekako web orrian albisteak, agenda, nobedadeak, online tramiteak eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzen dugu: www.arrasate.eus/biblioteka


2023an udaleko web orri osoa eraldatu genuen, diseinu berriago eta zerbitzu hobeko bat eskainiz. Bibliotekan ere, arlo guztiak berritu genituen itxuran eta edukian. Honen eraginez gorakada izugarria izan du web orriaren erabilerak, 2022tik %84a igo delarik.



Bibliotekako web orria: <http://www.arrasate.eus>

Web orriaren lekualdatzearen ondorioz, 2023an ezin izan genituen erabilerak datuak bildu.

* 2020an eman zen gorakada handiaren arrazoia da, biblioteka itxita egon zela hilabeteetan pandemiaren ondorioz, eta erabiltzaileengana iristeko modu nagusia bilakatu zela web orria.



Sare sozialei dagokienez, 2.232 jarraitzaile inguru ditugu Facebook, Twitter eta Instagram aplikazioetan.

IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK

HELDUAK

Literatura solasaldiak

Gure irakurle komunitatean arrakastatsuak dira eta liburutegi askotako erreferenteak. 2001 ekin genion euskarazko eta gaztelaniazko saioak antolatzeari, ondoren ingelesezko solasaldiak etorri dira eta 2023tik komiki kluba gehitu dugu.

Euskarazko solasaldiak Alex Gurrutxagak koordinatu ditu. Gaztelaniazkoetan *Literatura en lengua castellana* zikloa Ana Rodríguez Callealtak gidatu du eta *Curso de literatura europea* zikloa Luisa Etxeniketik. Ingelesezko solasaldiak John Costellok koordinatu ditu.

Horiez gain, aurreko urteko bigarren seihilekoan eskainitako *Club de cómic* solasaldiaren arrakasta ikusita, bi ziklo berri antolatuko ditugu: lehena otsailtik maiatzera Joseba Gómez koordinatzailearekin eta bigarrena urritik abendura Azucena Mongerekin.

Zenbait solasalditan hizpide den liburuaren idazleak edo itzultzaileak parte hartzen du.

Solasaldiak	Saio kopurua	Taldeko partaide kopurua
Euskaraz	8	26
Gaztelaniaz	8	30*
Ingelesez	5	21
Club de cómic	7	21

* Itxaron zerrenda egon da.



John Costelloarekin ingelesezko solasaldietan



Juan Kruz Igerabide idazlea euskarazko literatura solasaldietan



Ana Rodríguez Callealta eta Isabel Alba gaztelaniazko solasaldietan



Joseba Gómez Antonio Altarriba gonbidatuarekin komiki klubean

Ipuin kontaketak

Azken bi urteetan Intujai Teatro taldeak antolatzen duen *Heldu da Kontua* egitasmoan parte hartu dugu, eta horri esker, helduentzako kontaketa saioak eskaini ditugu euskaraz. Aurten ez da zirkuito hori antolatu, baina bibliotekak bere aldetik sustatu nahi izan du helduentzako ahozko euskal narraziogintza. Testuinguru horretan Dorleta Kortazar bailarako kontalaria izan dugu *80 amandre* ikuskizunarekin. Benetan saio hunkigarria izan da.



Dorleta Kortazar

Idazketa tailerrak

2023ko idazketa tailerretan jende asko geratu zen taldetik kanpo itxaron zerrendan eta, horregatik, 2024an ere eskaintza berritu dugu. Euskaraz oinarrizko idazketa tailerra antolatu dugu Miren Amuriza bertsolari eta idazlearekin; eta gaztelaniaz hastapen mailako bi, Alejandro Fernández Aldasoro idazlearekin. Tailer bakoitzak lau saioko iraupena izan du.



Miren Amuriza idazketa tailerrean

Liburu aurkezpenak eta hitzaldiak

Otsailean Josu Arteaga idazle arrasatearra izan dugu *Memorias de la mar ciega* bere azken liburua aurkezten. Saio honetan Patxi Irurzun idazleak egin ditu aurkezle lanak.

Martxoan Juan Ignacio Pérez Iglesias biologian doktorea eta fisiologian katedradunaren hitzaldia antolatu dugu, bibliotekan sortu dugun zientziaren gaineko interes gunearekin lotuta. “Evolución del encéfalo humano” izenburuko hitzaldiak *Primates al este del Edén* bere liburu berriaren aurkezpena ere izan da.

Maiatzean Garbiñe Larrea izan dugu *Zazpi sendabelar ukendua* saio teoriko-praktikoarekin. Tailerrak interes handia piztu du, gainera partaideek saioan bertan ukendua egiten ikasi dute.



Garbiñe Larrea hitzaldi-tailerra gidatzen

Nagusien Kontseiluarekin elkarlanean eta Arrasateko Pertsona Nagusien Asteko programaren baitan, urrian Arantza Urretabizkaiaren hitzaldia antolatu dugu, *Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?* izenburu erakargarriarekin.



Areto Nagusia gainezka Anakon eta Udal Bibliotekaren hitzaldian

Antzerkia

Ekainean *ZtandaP* izeneko ikuskizuna antolatu dugu bibliotekaren kanpo aldean, arrakala orgasmikoaren inguruan egin dugun interes guneari lotuta. Mirari Martiarenak eta Idoia

Torregaraik, binakako bakarriketetan, generoari umoretik begiratu diote betaurreko moreak jantzita.



Bibliotekaren kanpo aldea jendez lepo

HAURRAK ETA FAMILIAK

Ipuin kontaketak

Urtean zehar haurrentzako ipuin kontaketak antolatzen ditugu bai Kulturaten, bai Santa Marinako auzo bibliotekan. Saio hauek adin desberdinetako haurrei zuzenduta egoten dira. Beste batzuekin batera, Lupe Lekuona eta Amaia Elizagoien izan ditugu gure artean.

Orohar, oso saio arrakastatsuak izan dira, bai parte hartze bai kalitate aldetik.



Ameli ipuin kontaketa Santa Marinaran



Mireia Delgado Kulturaten

Mundutik Arrasatera

2015. urtean jaio zen Mundutik Arrasatera egitasmoarekin aurrera jarraitu dugu aurten ere. Hiru eragilek parte hartzen dugu bertan: proiektuaren bultzatzaile den Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Ekin Emakume Taldeak eta Udal Bibliotekak. Helburua da herritarron elkar ezagutza eta aniztasunaren errespetua sustatzea.

Aurten, 3 kontalari izan ditugu: Lide Ansoategi, Maider Alcelay eta Dani Martirena, aniztasuna eta migrazioa bezalako gaiak landuz.




Maider Alcelay ipuina kontatzen

STEAM tailerrak

Arragua elkarteak sortu eta dinamizatutako STEAM tailer bat antolatu dugu Kulturaten, *Makinak gara* izeneko eta esperimentazio elektronikoko eta digitala helburu duena. Jarduera hau lau saiok osatzen dute eta 6 eta 11 urte bitarteko neska-mutilei eta haien familiei eskaini diegu. Arrakasta handia izan du.



STEAM tailerra Kulturaten



Elektronikarekin esperimentatzen

Udazkenean zientziaren inguruko saio bat antolatu dugu Santa Marinako auzo bibliotekan. Bertan, Elhuyarretik Leire Lopetegi etorri da eta zientzia eta teknologia erronka batzuk egin dituzte esperimientuen bidez. Jarduera 7 eta 12 urte bitartekoei eskaini zaie eta 13 partehartzaile izan ditugu. Dinamizatzailerak oso lan txukuna egin du erronkak azaltzen eta haur eta gaztetxoak inplikatzeko. Neska-mutilak oso gustura irten dira.



Zientzia tailerra Santa Marinaran

Komiki tailerrak

Ainara Azpiazu "Axi" komikigile eta ilustratzailearekin antolatu ditugu oinarrizko komiki tailerrak, Institutuko DBH1eko ikasleei zuzendurik. Talde bakoitzari, tailerraz gain, haur eta gazte bibliotekako bisita gidatua eskaini zaio. Balorazioa positiboa izan denez, asmoa da 2024/2025 ikasturtearen baitan Arizmendi Ikastolako taldeekin ere jarduera hau aurrera eramatea.



Komiki tailerra Kulturaten



Komiki tira bat sortzen

Hizki-Hazka aretoa

Galtzagorrik sortutako areto literario honetan alfabetoa da protagonista. Hizkien forma, hots, mugimendu, lotura eta esanahiak landu dira, hizkietatik hasten baita literatura. Urriaren 7tik 11ra izan da gurean eta saio gidatuak eskaini zaizkie Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleei.

Areto Nagusian gauzatu ditugu saio guztiak, Kulturateko klaustroa hartuta egoten baita askotan eta partaidetza handia eskatzen duen erakusketa berezia delako.



Ikasleak Areto Nagusian

Mintzoan kux-kux

2011z geroztik martxan daukagu Galtzagorri elkarteak abiatu zuen egitasmo hau, lehen *Bularretik Mintzora* deitzen zena. Proiektu honen helburu nagusia da haurrengan irakurketa ohitura indartzea. Hori lortzeko, haurraren irakurketa guneak elkartzen dira: familia, eskola eta biblioteka, zirkuito bat osatuz. Izan ere, haurrak bibliotekara datoz egitasmoaren motxilareki eta liburu bat aukeratzen dute *Mintzoan kux-kux* txokoan. Etxean gurasoekin irakurri ostean, eskolan lantzen dute, eta han beste ikaskide batek hartzen du motxila liburuarekin, bibliotekara joango dena, zikloa berrituz etengabe. Horrekin batera, bazkide ez diren haurrei txartela egiten diegu momentuan, liburuia maileguan hartu dezaten. Aurten 25 motxila berri erosi ditugu hondatzen edo galtzen diren neurrian ikastetxeei oparitzeko.

2024an Arrasateko ikastetxe guztietako 3, 4 eta 5 urteko haurrek parte hartu dute proiektuan, zehazki, Herri Eskola zein Arizmendikoak.

Ikastetxeek oso ondo baloratzen dute egitasmo hau eta oso arrakastatsua da, haur denak bibliotekara (Kulturatera edota Santa Marinara) eta irakurketara hurbiltzea lortzen dugulako, haien familiekin batera.



Mintzoan kux-kux txokoa

OROKORRAK

Liburuaren Eguna 2024

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta ospatzeko, hainbat jarduera antolatu ditugu.

Helduei dagokienez, Eñaut Elorrieta eta Iñigo Astizen *Enplegu zoriontsuago bat* saio literario-musikala eskaini dugu, Gabriel Arestiren kantu eta poemetan oinarrituta dagoena.



Eñaut Elorrieta eta Iñigo Astiz

Bestalde, haurrentzat saio bereziak egon dira bai Kulturaten, bai Santa Marinan. Lehenengoaren kasuan, *Euskelelea* ikuskizun musikatua antolatu dugu. Euskelelea ukelelearen antzeko musika tresna bat da, euskal jatorrikoa, eta berori ardatz hartuta, Euskal Barrok Ensemblek kantu, ipuin eta ilustrazio ederrez osatutako ikuskizuna eskaini du. Saio honetan Goikobalu Txiki Arrasateko abesbatzak parte hartu du eta oso ikusgarria izan da.



'Euskelelea' Areto Nagusian

Santa Marinako bibliotekari dagokionez, Vanessa Gonzalez kontalari arrasatearra izan dugu.



Vanessa Gonzalez Santa Marín

Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak kartela eta flyerra diseinatu dizkigu eta K3n inprimatu dira.

Bibliotekaren Eguna 2024

Urriaren 24a Bibliotekaren Eguna da eta ospatzeko, hilabetean zehar hainbat saio berezi eskaini ditugu.

Helduentzat *Bertso-saio espekulatiboa* izeneko ikuskizuna izan dugu. Proiektu honen ardatza *Zirriborroak eta gero* liburua da, zeinetan gaur egungo alternatiba soziopolitikoetatik abiatuta fikziozko fabula itxaropentsuak biltzen baitira. Bertso-saio honetan irudimena are gehiago hedatu da. Saioa Maite Berriozabal gai jartzaileak gidatu du eta bertsolari hauek parte hartu dute: Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina.



Bertso Saio Espekulatiboa

Haur txikientzat Iñaki Carretero eta Alba Carreteroren *Atximurka* saioa eskaini dugu Kulturaten, kontuak eta kantuak uztartzen dituen.



Alba Carretero eta Iñaki Carretero

Santa Marinan, berriz, ipuin kontaketa ilustrazioekin aberasten duen saioa izan dugu. Jarduera Kontukantoiak bikoteak eskaintzen du eta hauxe da bere izenburua: *Amonaren belarriak entzundako kontu txiki eta haundiak*.



Kontukantoi Santa Marinako auzo bibliotekan

Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak gasteiztarrak kartela eta flyerra diseinatu dizkigu eta K3n inprimatu dira.



Ahoz Aho 2024

Intujai Teatro taldeak urtero antolatzen du *Ahoz Aho* ahozketasunaren jaialdia. Aurtengoa 17. edizioa da eta bertan parte hartzea proposatu digute oraingoan ere. Horri esker, nazioarteko kontalariak izan ditugu otsailean. Haurrentzat Kulturaten Charo Pita galiziarra izan dugu Odei Arregi euskaldunarekin batera, eta Santa Marinan Nelson Calderon kolonbiarra Ane Gebara euskaldunarekin. Helduentzat, berriz, Aldo Mendez kubatarraren kontaketa eskaini dugu.



Kulturateko saioa



Santa Marinako saioa



Aldo Méndez helduei zuzendutako saioan

Jaialdi honen barruan eta ekitaldi berezi bezala, martxoaren 20an eta Ahozketasunaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Juan Kruz Igerabide izan dugu Kulturaten egunari dagokion

mezua zuzenean irakurtzen eta, ondoren, herritarrek Berceur du Temps Quebec-eko taldearen egitasmoa ezagutu ahal izan dute, zeinek munduko herrialde desberdinetako sehaska kantak jaso eta biltzen baititu.



Igerabide manifestua irakurtzen




Herritarrek sehaska kantak entzuten

Biblioporrak eta Neguko Gida

Aurten inguruko liburutegien artean elkarlanean gauzatzen den gida honi, Antzuola herria gehitu zaio. Beti bezala urtean bi gida osatu eta argitaratzen ditugu liburu, pelikula eta diskoen gomendioekin. Zabalkundeari dagokionez, paperean zein formatu digitalean zabaldu dira, eta ikastetxeetan lehen hezkuntzako irakasleei banatu zaizkie. Halere, liburutegi eta bitartekari askok eskatzen dizkigute gure gida hau.

Aurten, diseinua eta maketazioa Helena Azkarragaurizar marrazkilari arrasatearrak egin ditu.



2024/2025 ikasturteko eskaintza iragartzeko triptikoa

Triptiko bat kaleratu dugu ikasturteko solasaldien eta tailerren berri emateko, baita horren egokitzapena izan den kartel bat ere. Diseinua eta maketazioa Concetta Probanza ilustratzaile eta diseinatzaile urretxuarrak egin digu eta, inprimaketa, berriz, K3 Inprimategiak.



Triptikoaren azala

Irakurpuntu

Irakurpuntu bana prestatu dugu 2025erako, bat Kulturaterako egutegiarekin eta bestea Santa Marinarakoarekin. Ilustratzailea Ruth Juan izan da eta. Arrasateko hainbat gai hartu

ditu inspirazio iturri: harresia, dragoia eta ezpatak egiteko XV. mendetik XVII. mendera erabiltzen zen altzairu kotizatua eta ezaguna. Maketazio eta inprimategiaren ardura Ikuska etxearena da.

2025 Santa Marinako auzo biblioteka

URTARRILA OTSAILA

MARTXOA APRILA

MAIATZA EKAINA

UZTAILA ABUZTUA

IRAILA URRIA

AZAROA ABENDUA

Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes 16:30- 20:00
Ordutegi berezia / Horario especial 16:30- 19:00
Itxita / Cerrado

MAILEGUA
Mota bakoitzeko 3 dokumentu. Liburuak 21 egun, besteak 7 egun.
Berritu daitezke, erreserban ez badute.

PRESTAMO
3 dokumentu de cada tipo. Libros 21 días, otros documentos 7 días.
Se pueden renovar, salvo que est en reservados.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAÓN

Galizia, Leku 1A, 20500 Arasate / WhatsApp: 688 68 91 13 / anbiblioteka@arasate.eus / www.arasate.eus/biblioteca
Instituzio: Ruth Jun / I.G.O.0012-2024



2025 biblioteka

URTARRILA OTSAILA

MARTXOA APRILA

MAIATZA EKAINA

UZTAILA ABUZTUA

IRAILA URRIA

AZAROA ABENDUA

Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes 10:00-20:00
Larunbatean / Sábados 10:00-13:00
Ordutegi berezia / Horario especial 10:00-13:00/16:00-20:00
Udako ordutegia / Horario de verano 10:00-14:00/16:00-20:00
Abuztua / Agosto 9:30-14:30
Ordutegi murriztua / Horario reducido

MAILEGUA
Mota bakoitzeko 3 dokumentu. Liburuak 21 egun, besteak 7 egun.
Berritu daitezke, erreserban ez badute.

PRESTAMO
3 documentos de cada tipo. Libros 21 días, otros documentos 7 días.
Se pueden renovar, salvo que est en reservados.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAÓN

kultur
ate

Arasate, Leku 1, 20500 Arasate / WhatsApp: 688 68 91 13 / biblioteka@arasate.eus / www.arasate.eus/biblioteca
Instituzio: Ruth Jun / I.G.O.0012-2024

Interes gunek

Gai bat aukeratu eta haren inguruko materialak elkartzan dira hainbat euskarritan epe jakin baterako. Helburua da erabiltzailearen arreta eta interesa erakartzea, irakurzaletasuna sustatzea eta bibliotekako bilduma modu dinamikoan ikusaraztea.

Interes gunen aukeraketa egiteko irizpideen artean, kontuan izaten ditugu gaurkotasuna duten gaiak, urteurrenak, nazioarteko egun seinatuak, idazleen heriotzak, eta abar. Lekuari dagokionez, bibliotekako gune desberdinak erabiltzen ditugu gai eta funts hauei ikusgarritasuna emateko. Interes gunean jasotako dokumentuekin gida bat argitaratzen dugu bai paperean eta baita web orrian ere. Zenbaitetan, hitzaldi bat antolatzen dugu gaiarekin lotuta.

Aurten 13 gai aukeratu ditugu.

Interes guneak

- Zientzia dibulgazioa
- Agenda 2030
- Itsasargiak
- Itsasoa eta ozeanoak
- Landa bizitza
- Alice Munro (1931-2024)
- Euskadi Sariak 2024
- Gerrako haur erbesteratuak
- Udako irakurketak
- Arrakala orgasmikoa
- Euskararen Eguna
- Heriotza eta dolua
- Arrasateko idazleak. Literatura eta ilustrazioa



Bibliotekako gune desberdinetan jarritako interes guneak

Irakurketa Errazeko irakurle taldeak

Azken urteotan Goyeneche Fundazioko irakurle taldea dugu bibliotekan. Liburuak lortzen dizkiegu eta astearte goizetan biltzen dira haur bibliotekan irakurtzera. Honez gain, EPA-HHI, Arizmendi, Iturbide Egoitza, San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaletako zenbait talderi ere lortzen dizkiegu liburuak, baina talde hauek beraien egoitzetan biltzen dira.



Goyeneche Fundazioko irakurle taldea

Bisita gidatuak

Bibliotekan bisita gidatu hauek prestatu eta aurrera eramán ditugu:

Non	Erakundea	Maila	Saio kopurua
Kulturate	Arrasate Herri Eskola (Erguin)	LH1	3
	Arrasate Herri Eskola (Erguin)	LH2	3
	Arrasate Herri Eskola (Erguin)	LH3	4
	Arrasate Herri Eskola (Erguin)	LH4	3
	Arrasate Herri Eskola (Erguin)	LH4-5-6 (errefortzu gela)	1
	Arrasateko Institutua	DBH1	4
	Arrasateko Institutua	ZIG gela	1
	EPA	Helduak	2
	Bastida Akademia	Helduak	1
	San Juan de Dios	Helduak	1
Santa Marina	Arrasate Herri Eskola (Musakola)	HH 3, HH 4, HH 5	23



Bisita gidatuak haur eta gazte bibliotekan



Bisita gidatuak Santa Marina auzo bibliotekan



Helduen bisita gidatua

JARDUERAK ZENBAKITAN

Hauek dira urtean zehar egin ditugun jarduera guztien emaitzak, zenbakitan adierazita. Azpimarratzekoa da azken urteetan lehiaketek erabiltzaileen artean hartu duten arrakasta.

	Saio kopurua	Partaide kopurua
Jarduerak (solasaldiak, ipuin kontaktak, ikuskizunak, tailer, hitzaldiak, lehiaketak)	85	2.317
Bisita gidatuak	46	550
Guztira	131	2.867

ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Irakurketa sustatzeko jardueraz haratago, bibliotekan ez dugu ahazten komunitatearen ikuspegia. Egun, kontuan dugu espazio sozialak izatearen kontzeptua eta horregatik saiatzen gara herriko eragile desberdinekin gure partehartzea sustatzen, liburutegitik gizarte-kohesioa indartzeko eta eraldatzeko asmoarekin. Aurten, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean aliantzak eraiki ditugu, esaterako:

Goyeneche Fundazioa

Azken urteetako ohiturari jarraiki, Goyeneche Fundazioko lagunek irakur puntuak egiten dituzte Garagunean, eta ondoren bibliotekako harreran uzten dituzte erabiltzaileek opari modura eraman ditzaten. 2024an aukeratu dituzten egun esanguratsuak, besteak beste, hauek izan dira: Aniztasun Kulturalaren Nazioarteko Eguna, Martxoak 8, Bibliotekaren Nazioarteko Eguna, LGTBIQ+ Eguna, Movember eta Minbiziaren Nazioarteko Eguna.



Irakur puntuak sarrerako mostradorean



Txatxilipurdi Elkarte

Aurten ere herriko elkarte honekin *Freskura* egitasmoan parte hartu dugu. Zehazki, udaran igerilekuan haur eta gaztetxoei maileguan uzteko irakurgaiak aukeratu eta helarazi dizkiegu: aldizkariak, komikiak eta ipuinak euskaraz. Oso ondo baloratzen dugu elkarlan hau

bibliotekaren ohiko eraikinetik aparte gure liburuak erakusten baitira eta ohikoak ez diren erabiltzaileengana iristeko aukera dugulako. Egitasmoaren aurtengo berritasuna da gaztetxoekin irakurle talde bat osatu dutela, Freskura Irakurketa Klub-a, Nerea Loiola idazlearen liburuak irakurri eta berarekin komentatu dutela.



Freskura egitasmoaren kartela eta Txatxilipurdi elkarteko begirale bat igerilekuan



Arrasateko Nagusien Kontseilua

Arrasateko Pertsona Nagusien Astearen programaren baitan, bibliotekak *'Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?'* izeneko hitzaldi-tailerra antolatu du Arantxa Urretabizkaia idazlearen eskutik. 120 pertsona bertaratu dira hizlaria pertsona oso ezaguna baita, eta parte hartze handia egon da. Hirugarren urtez, sendotzen ari da Anakon taldearekin daramagun elkarlana.



Pertsona Nagusien Asteko programaren aurkezpena



Arantxa Urretabizkaia

Arrasateko Institutua

Apirilean, Arrasate Institutuko DBHko 2. mailako ikasleek Adierazpen artistikoko ikasgaia klasean *Emakume Kubistak eta Moda diseinua* izeneko proiektuaren barruan egindako lana oparitu digute. Bide batez, bibliotekara bisita egiteko aprobetxatu dute. Artelana, Amaia Martiartu eta Nahia Elesgarai irakasleen gidaritzapean egin dute eta helduen bibliotekako sarrerako apalategi nagusiaren gainean jarri dugu.



Ikasle eta irakasleak beraiek sortutako artelanarekin

Arizmendi Ikastola

Maiatzean, Arizmendi Ikastolako DBHko 2.mailako ikasle talde batek “Errealismotik abstrakziora” izeneko erakusketa jarri du bibliotekako lehenengo solairuan. Beraientzat esanguratsuak diren kontzeptuekin artelanak sortu eta sabaitik zintzilik jarri dituzte. Ekimenaren berri emateko prentsa agerraldia egin da bibliotekaren kanpo aldean. Erakusketa hilabetez luzatu da eta ikusmen handia sortu du.

Informazio gehiago ikasleek eurek prestatu duten bideo honetan:

<https://mondraberri.eus/errealismotik-abstrakziora-erakusketa-egingo-dute-arizmendiko-dbh2ko-ikasleek/>




Erakusketaren muntaketa eta aurkezpena

Arrasateko beste eragile batzuk

Arrasateko eragile desberdinek kultur etxean antolatu dituzten hitzaldi eta erakusketak aberaste aldera, eta beraiekin adostuta, interes gune desberdinak jarri ditugu urte osoan zehar:

- *‘Eskola Agenda 2030’*: herriko ikastetxeek, Udalaren Ingurumen Eskolarekin elkarlanean, *Energia hiri jasangarrian* izeneko erakusketa antolatu dute ekainean klaustroan. Gaiari buruzko interes gunea klaustroan bertan jarri dugu.
- *‘Gerrako haur erbesteratuak’*: Intxorta 1937 Kultur Elkarteak *Orratz Begia* izeneko erakusketa antolatu du irailean klaustroan, gerra zibilean erbesteratutako haur euskaldunei buruzkoa. Gaiarekin lotutako funtsak atera ditugu eta interes gunea jarri dugu.
- *‘Heriotza eta dolua’*: Amaidolua elkarteak dolua eta heriotzari buruzko bi hitzaldi eta liburu aurkezpen bat antolatu ditu azaroan eta abenduan zehar. Emakume Txokoak, bestalde, dolu perinatalari buruzko ekimena eta elkarretaratzea egin ditu azaroan.

Gaiaren inguruko interes gunea bigarren solairuko harreran jarri dugu hilabete horietan zehar.



Hiru interes guneak bibliotekako txoko desberdinetan

Osakidetzaren Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua

Oñatiko emagin zerbitzuaren eskaerari erantzunez, eta berarekin lankidetzan, haurdunaldiaren inguruko gida bat prestatu dugu, etapa honetako alderdi desberdinen gaineko liburuak eta bestelako baliabideak jasotzen dituena. Oñatiko anbulatorioan eta Arrasateko bibliotekan zein web orrian dago eskuragarri.



Gidaren azala eta ifrentzua

LANTALDEA

Urteko helburu eta erronkak lortzeko orduan, eta aurrekontu-mugak gorabehera, liburutegiek ezinbesteko baliabidea dute: pertsonak. Arrasateko bibliotekan zerbitzua eskaintzen da 8 langile finkorekin, lanaldi osoan. Horietako 5 langile A2 mailako bibliotekariak gara eta 3 langile C1 mailako liburuzain laguntzaileak. Hauetako liburuzain laguntzaile bat Santa Marina auzo bibliotekako langilea da.

Udan, auzo biblioteka itxi egiten da eta bertako langilea Kulturatera dator. Langileen oporraldian Kulturateko zerbitzua zabalik mantentzeko, liburuzain laguntzaile bat kontratatzen da bi hilabeterako.

Udalak urtero sinatzen du *Gureak* taldearekin *Pauso Berriak* programan parte hartzeko elkarlan hitzarmena. Horri esker, David Raso lankidea etortzen da lanera egunero ordu eta erdiz.



PRESTAKUNTZA

Lan-bizitza aberasgarri baten osagai nagusietako bat jakin-min aktiboari eustea da. Gurean, informazioa eta dokumentazioarekin lan egiten dugunez, erabiltzaileak artatzeko eta gizarteak eskatzen dituen gero eta behar handiagoi aurre egiteko, ezagutzak etengabe eguneratu behar ditugu. Prestakuntzak gure begirada zabaltzea eskatzen digu edo beste erakundeek zer egiten duten jakitea. Euskadiko Komunitate Autonomoan ez dago informazio eta dokumentazio ikasketa arautuen eskaintzarik. Horregatik, elkarte profesionalen sareetara jotzen dugu heziketa gaurkotua jasotzeko orduan.

Zentzu horretan, Arrasateko bibliotekan ez dugu urteetan zehar ikasteko kuriositatea galdu, jarraitzen dugu prestakuntzaren aldeko apustua egiten.

Ikastaroa	Orduak	Langile kopurua	Antolat
Sare sozialetarako ikus-entzunezko edukiak sortzea eta editatzea	8	1	ALDEE ELKARTEA
Oinarrizko katalogazioa eta MARC21 formatuaren hastapenak	15	2	ALDEE ELKARTEA
Nuevos espacios de bibliotecas	6	2	ALDEE ELKARTEA
GESTIÓN DE LA COLECCIÓN I. Criterios de formación de la colección y expurgo.	15	2	ALDEE ELKARTEA
Digitalización de Archivos y Bibliotecas, conceptos básicos y procedimientos	12	1	ALDEE ELKARTEA
4. hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko ikastaro trinkoa	70	1	ARRASATEKO UDALA-EUSKARA SAILA
Haur literatura: klasikoak eta albumaren egungo joerak	5	3	GALTZAGORRI ELKARTEA

INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

Kulturate

XXI. mendearen hasieran, begi bistakoa da teknologiak gizarte berri bat moldatzen ari direla. Sortzen ari den gizarte berri honetan herritarrak informazio eta komunikazio teknologiekin harreman estua eduki eta erraztasunez erabili beharko ditu, eskubide osoko kide izateko. Zentzu horretan, bibliotekako iazko ekipamendu berri gehienak teknologiarekin du zerikusia. Ekipamendu hau erosi da:

- Eskanerra erabiltzaileentzat.
- Barra-kode irakurle bat bazkide txartelak mugikorretik irakurri ahal izateko Santa Marina auzoko bibliotekarako.
- 2 ordenagailu eramangarri erabiltzaileentzat, bat auzoko liburutegirako.
- 4 liburu elektronikoa erabiltzaileentzat.
- Auto mailegua makina Kulturateko sarrerarako.
- Sagu ergonomikoak eta aurikularrak.
- Intrusio sistema-kamerak zabaldu berri den Ikasteko gelarako.

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	1.400
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	1.276/550
Irakurpuntuak	177
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	22/10
OPAC(katalogoa kontsultzeko ordenagailua)	5
Inpresorak (publikoak/barnekoak)	4/4
Eskanerrak (publikoak/barnekoak)	2/3
Ordenagailu portatilak (publikoak/barnekoak)	6/0
Fotokopiagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
eReaderrak (publikoak)	16
Tablet (publikoak/barnekoak)	2/1
DVD irakurgailua (bertan ikusteko/mailegurako)	4/1
Wifi zerbitzua	Bai
Wifi bidez inprimatzeko aukera	Bai
Astean irekitako orduak	55,5

Kultur etxearen ekipamenduari begira 2024ko azaroaz geroztik, Ikasteko Gela ordutegi zabalago batean irekitzeko apustua egin du Udal Gobernuak. Zerbitzu berri hau emateko inbertsio handia egin da eta ikasleek liburutegiaren ordutegitik haratago aukera handia dute orain. Gela modu autonomoan gestionatzen da, 48 eserleku daude eta gaur arte 346 txartel emititu dira.

Santa Marinako auzo biblioteka

Toki Argi izena duen eraikinean kokatzen da Santa Marina auzoko biblioteka orain dela **34 urte**. Kontuan izanda, estandarrak 350 m2 ezartzen dituela zerbitzu on bat emateko eta gure bibliotekak 46 m2 baino ez dituela, 2024. urtean zehar udal gobernuarekin eta teknikariek batera lan egin dugu arazo honi irtenbide praktikoak emateko, eta litekeena da datozen urteetan liburutegi-zerbitzuak kalitate handiagoa eskaintzea espazioari eta ekipamenduari dagokienez.



Auzo bibliotekarako erosi den armairua



Auzo biblioteka barrutik

Aurten ekipamendu arloan auzo bibliotekarako kontu sail berezi bat egon dela baliatuz, aukera izan dugu armairu bat eta apalategi berri bat erosteko, langilearen aulkia berrizteko ere eta ipuin kontaketa egiten direnerako kuxinak ere erosi ditugu.

Teknologia berriaren dirulaguntzari esker, irakurleei mailegatzeko ordenagailu eramangarri bat eta klaberik gabeko barra kode irakurgailu bat ere erosi dira.

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	46
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	51/4
Irakurpuntuak	27
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
Ordenagailu eramangarria	1
OPAC (katalogoa kontsultatzeko ordenagailua)	0
Inpresorak (publikoak eta barnekoak)	1
Fotokopiagailuak (publikoak eta barnekoak)	1
eReaderrak	2
DVD irakurgailua	1
Wifi zerbitzua	Bai
Astean irekitako orduak	17,5

FINANTZAKETA


Arrasateko bibliotekan eskaintzen ditugun zerbitzuak doakoak dira, baina liburutegi publikoak Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren eta tokiko administrazioen erantzukizuna dira. Liburutegietan inbertitzea ez da alferrikako gastua, aukera berdintasunaren aldeko ekintza da. Liburutegien aldeko politikak dira etorkizuneko inbertsiorik onena, gizarte kohesioari bultzada emango diona.

Finantzaketa alorrean, azken bost urteetako bilakaera erakutsi nahi dugu.


2024. urtean material bibliografikoa erosteko Kulturaten dagoen bibliotekaren aurrekontua 45.000 €-koa izan da, azken urteekin alderatuta gehikuntza egon arren, ez dugu betetzen bildumari dagokion estandarra.

Eskuraketa bibliografikorako Arrasateko liburutegiak **11.145 €** jaso ditu Eusko Jaurlaritzatik. Udalak **32.621 €** jarri ditu. Guztira **43.766 €** erabili dugu liburu, ikus-entzunezko, egunkariak eta aldizkariak erosteko.

Santa Marina liburutegiak 2024. urtean ere gehikuntza izan du liburuak eta beste material bibliografikoa erosteko 4.000€ izan ditu, erabili den kopurua **3.983,78 €** izan da.




Santa Marinaran eskuraketa bibliografikorako finantzaketa



Irakurketa ludikoa sustatzeko eta diziplina artistiko ezberdinen bitartez publikoa literaturara eta bibliotekara gerturatzeko jarduera mordo antolatzen ditugu; ekintza motak ezagunak eta iraunkorrak dira -literatura solasaldiak, ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak, hitzaldiak. Aurrekontu honen kopuruarekin aukera handiak ditugu programazio anitza, iraunkor eta erakargarria antolatzeko. 2024an, irakurketa sustatzeko jardueren finantzaketa modu honetan gauzatu da: Arrasateko udalak **35.806,59 €** eta Eusko Jaurlaritzak **3.715 €**. Hasierako 40.000 €-ko aurrekontutik ia guztia erabili dira, **39.521,59 €** hain zuzen. Udalaren apustua nabarmena eta eskertzekoa da.

Irakurketa sustatzeko jardueren finantzaketa



Teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko dirulaguntza jaso dugu Eusko Jaurlaritzatik. Bibliotekako ekipamenduan aurten inbertsioa handiak egin dira, auto mailegu berria erosi da, ikasteko gelan kamerak jarri dira, auzoko liburutegian ordenagailu eramangarria eta kablerik gabeko barra kode irakurgailuak erosi dira. Egindako gastua azken lau urteetan gauzatutako altuena izan da. Eusko Jaurlaritzak **14.220 €** jarri ditu eta Arrasateko Udalak **1.666,61 €**. Guztira **15.886,61 €**.

LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA

20.000 biztanletik gorako udalerrietako liburutegi publikoek Eusko Jaurlaritzak onartutako 11/2007 Legeak ezartzen dituen zerbitzu batzuk bete behar dituzte.

Arrasaten estandarren garapena horrela jasotzen da:

Adierazlea	Arrasateko Udal Bibliotekan	20.001etik 30.000ra biztanleko herriak
Zerbitzuguneak	Liburutegi nagusia + haur eta gazte liburutegia	Liburutegi nagusia + hiri liburutegi 1
Azalera (m2)	Kulturate: 1.600 m2 Santa Marina: 46 m2	Liburutegi nagusia: 1.500 m2 Gutxieneko eremua: 350 m2
Sarbide libreko funtsak	56.580 dokumentu	43.886 dokumentu
Eskuratze indizea	Bildumaren % 8	Bildumaren % 10
Sarbide informatikoa	Kulturate: 24 Santa Marina: 3	Liburutegi nagusia: 20 Hiri-liburutegiak: 10
Langileak	8 langile	11-14 langile
Astean irekitako orduak	55,5	60-70

ONDORIOAK ETA LAN LERROAK

Memoria hau urtebeteko talde-lanaren emaitza da, eta gure zerbitzuaren daturik garrantzitsuenak biltzea eta zabaltzea du helburu. Era berean, inoiz gelditzen ez den, eboluzionatzen jarraitzen duen eta antolatzen dugun jarduera bakoitzarekin aberasten den lan bat esploratzeko balio du.

Txosten honen edukia irakurri ez ezik, eztabaida sortzeko eta etorkizuna eraikitzeko balio izatea nahi genuke. Jaso ditugun datuak kontuan izanda, ondorio hauek atera ditzakegu:

Bildumari dagokionez, nahiz eta ez heldu estandarrek ezarritako kopurura, nahiko gertu gaude eta esan genezake gure bilduma eguneratua dagoela eta erakargarria dela. Horren adierazle dira dokumentuen maileguen igoera eta, baita ere, beste liburutegietatik egiten dizkiguten eskaeren gorakada.

Irakurketa suspertzeko jarduerak erritmo oso ona hartu dute, ia astero programatzen ditugu bizpahiru ekintza. Saio hauek oihartzun handia dute, parte-hartzaileen balorazioek eta zenbakiak adierazten duten bezala. Herriko hedabideek, bai prentsa idatziak, bai sarean argitaratzen denak eta bai telebistak tokia egiten digute. Iaz martxan jarri genituen jarduera batzuk, adibidez idazketa ikastaroek finkotasuna lortu dute. Horretaz gain, biblioteka herrira zabalduz gure esparrutik irteteko urratsak ematen hasi gara eta Kulturate inguruan ekintza batzuk antolatzen hasi gara, esaterako Ahozkotasunaren Nazioarteko Egunaren bueltan. Datozen urteetan esperientzia errepikatzea nahi dugu. Modu horretan, gure zerbitzua osatzen dela uste dugu, irakurle edota bibliotekako erabiltzaile ez direnentzako ere interesa eduki dezaketen gaiak landuz.

Liburutegiko azpiegitura teknologikoa asko erabiltzen da. Kontuan izatekoa da aurten 16.281 saio burutu direla eta 33.880 orri inprimatu direla. Eskanerra eta inprimaketa dira gehien erabiltzen diren aukerak. Baita, ordenagailu eramangarriaren zerbitzua ere. Garbi geratzen da teknologia herritar guztien eskura jartzea izan behar dela gure helburua, beti ere, tresneria eguneratu eta funtzionamendu egokiarekin.

Bestalde, azpimarratzekoa dira, batetik, Udalbatzak Bibliotekaren Ordenantza onartu duela udaberrian eta, bestetik, udazkenean ikasle gazteen aspaldiko eskakizun bati erantzunez, Kulturaten zabaldu den Ikasteko Gelaren zerbitzu berriaren arrakasta. Dagoeneko 350 txartel elektronikoa egin dira.

Etorkizun hurbilean hauek lirateke gure bide-orri nagusiak:

- 2024an osatu dugun Plan Estrategikoan sakondu.

Argi dago liburutegien kudeaketan planifikazioa garrantzitsua dela. Abiapuntu moduan, bibliotekak eskaintzen duen zerbitzuari buruzko gogobetetze inkestak sobera erakutsi du herritarrek gure zerbitzua eskertzen dutela. Bildu dugun emaitza oso interesgarria eta baliotsua da. Horrela, bada, datozen urteetarako lan ildoak eta helburuak finkatu ditugu. Plan Estrategikoari esker, eskaintzen ditugun zerbitzuak hobetzeko eta udalerriko eta bertako biztanleen egungo beharrei behar bezala erantzuteko gai izango gara eta, erakunde moduan zorrotasuna eta gardentasuna irabaziko ditugu.

- Santa Marinako bibliotekak espazio gehiago izateko asmoa errealitatea bihurtu.

Aurten Udalak apustu egin du auzoko liburutegian instalazioak berritzeko eta Toki Argi eraikinean leku gehiago eskuratu eta zerbitzua hobetzeko, agerian geratu baita gaur egun eskaintzen ditugun baliabideak ezin direla egokitu XXI. mendeko premietara eta zereginetara.

Ez dauzkagu erronka makalak, ez.

Aurrera egin dezagun indarrez eta ilusioz.

BIBLIOGRAFIA

- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa

<https://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/ley/bopv200706288>

- Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarrak

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion_profesional_biblio/eu_def/adjuntos/estandarrak_LP_2012.pdf

- Gonzalo Oyarzún: *Liburutegi imajinatua. Komunitateak ereiteko lorategia*. Donostia: ALDEE, 2023

- Euskarazko argitalpenei buruzko XVIII. Txostena

https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/keb_argit_lib_euskara_2022/eu_def/adjuntos/Euskarazko-argitalpenak-2022.pdf

- IFLA-UNESCO Manifestua, Liburutegi Publikoei buruzkoa (2022)

<https://www.aldee.eus/eu/dokumentuak/>